

JUAN MARI BELTRAN HIRUKOTEA

EUSKAL HERRI MUSIKA ETA SOINU-TRESNAK

Emanaldi honetan, euskal herri musikaren kantu, doinu, dantza eta gure soinu-tresnen hotsen bitartez euskal herri musikaren zenbait alderdi erakustea dugu helburu. Kontzertuan zehar "Euskal Herri Musika"ren barneko alderdi batzuetara hurbilduko gara eta Euskal Herriko zenbait eskualdetako ospakizun publiko nahiz familiarretan erabiliak izan diren soinu-tresnak eta musikak entzun ahal izango dira.

Adarrak jo izan dira txalaparta saioekin batera eta horrela jarraitzen dugu **txalapartaren** bi joera tradizionalak emanez: Urumea aldeko "ttakun ttan ttakun" eta Bidasoa eta Gipuzkoaldeko tobera-metalezko txalaparta. Garai bateko artaxuriketako kanta eta dantzak **arrabita rabelaren** laguntzarekin eta gure kale eta erromerietan entzuten zen **zarrabetea** ere entzuteko aukera ematen da.

Zuberoako bi inguruetako musika: mendiko **Txanbela** soinu-tresnaren erreperatorioko artzainen antzinako doinu librea eta **Xirula eta ttunttuna** ren plazako dantzak. Zuberoan gaur egun oraindik bertako dantzak egiteko soinu-tresna hauek dira gidari musikalak, batek doinua eman eta besteak erritmoa markatzen eta azpiko tonala emanez. Baserrietako giroan jotzen zen **tronpa** edo **musukitarra**. **Xirolarru-bota** izenarekin ezagutzen da Arabako Errioxan kornamusa motako tresna hau. Dultzainaren erromeria. Euskal erromeri eta baserriar inguruko festetan **dultzaina** eta **danborra** izan ditugu dantzarako soinu-tresnak. XX. mende hasieratik hauekin batera jotzen zen **soinu-txiria** edo **trikitixa**. Hiru dantza mota dira nagusiki erreperatorio honetan agertzen direnak: fandango-jota, arin-arin - porrusalda eta martxa.

Txistu eta **danbolina**. Euskal Herriko danbolinteroeek mantendu duten dantza doinu erreperatorioko eskualde ezberdinetako ale batzuk eskaintzen dira. Eta bukatzeko albokaren Erromeria. **Alboka** bakar barrarik edo **panderoaren** laguntzaz dugu euskal herri musikaren beste talde ezaguna. Bizkaiko eta Gipuzkoako albokari zaharrak izan dira azken mendeetan gure erromerietako protagonistak. Aipatutakoaz gain emanaldiaren zehar musika laguntzeko erabili izan diren kanabera, txaramelak, tupinutsia eta burrunak bezalako beste soinu-tresna entzun daitezke.

EMANALDIAREN EGITARAUA

ADARRA, TTAKUN TTAN TTAKUN, Txalaparta Euskal Herriko ohitura tradizionalen izen eta joera ezberdinekin agertzen da, Urumealdeko **ttakun ttan ttakun** da horietako bat. Tradizioz egiten zen bezala, **ttakun ttan ttakun** jotzen hasi aurretik, adar joaldia entzuten da eta segidan txalapartaren hotsa.

ARRABITA RABEL

Garai batean gure lurraldeetan hain erabilia izan den sokazko soinu-tresna hau, gure kantutegi zaharretik hartutako fandango eta arin-arin motako bi dantza doinu.

ZARRABETEA

Soinu-tresna honen inguruko dantzak. Euskal Herrian orain ehun urteko aipamenetan agertzen dira soinu-tresna honi buruzko azken aztarnak. Gero baztertu izan zen, baina gure inguruko zenbait eskualdeetan erabiltzen jarraitu dute eta beren erreperatorioan gure herri erreperatorio zaharra diren doinu asko agertzen dira.

TXANBELA

Txanbela erreperitorioko Zuberoako artzainen antzinako *Xarmagarri bat ba dut* kantuaren doinu librea. Pierre Caubet Zuberoko Lakarriko txanbelariari ikasitako kantua.

XIRULA ETA TTUN-TTUNA

Baxenafarroako *Dantza luzea* eta Zuberoako *Aintzina Pika* eta *Branlea* xirula eta sokazko danborra den ttuntunarekin. Soinu-tresna hauek ditugu Zuberoan gaur egun oraindik bertako dantzak egiteko gidari musikalak, batek doinua eman eta besteak erritmoa markatzen eta azpiko tonala emanaz.

TRONPA-MUSUGITARRA

Orioko San Martin auzoan ikasitako Nikolas Garmendia tronpa-jole zaharraren erreperitorioko bi dantza doinu.

XIROLARRU-BOTA:

Pirinio aldeko *bohasac* izeneko alboka motako xirolarrua edo kornamusa txikia. Mendi inguru horretako doinuak eta dantza bildumatxoak: katadera-dantza, zaragi-dantza eta Zurrume dantza.

Bota izenarekin Arabako Errioxa aldean jotzen zen xirolarrua (gaita-kornamusa). Bertako dantza doinuak: Txulo eta Errioxako kale bueltak.

TXALAPARTA

Gaur egun txalapartan garapen handia izan da; tradiziozko zura eta metalez gain harriak ere erabiltzen dira, erritmo tradizionalak eta berriagoak nahasten dira eta batzuetan funtzio melodikoa ere hartzen du.

DULTZAINA, TRIKITIXA

Nafarroako gaitero-dultzaineroen erreperitorio akademiko estiloko bildumatxoak.

Dultzainaren erromeria. Euskal erromeri eta baserritar inguruko festetan dultzaina eta panderoa edo danborra izan ditugu dantzarako soinu-tresnak. Biderako eta "korruak" biltzeko jotzen ziren martzez gain, fandango-jota eta arin-arin - porrusalda izan dira nagusiki erreperitorio osatzen zuten dantzak.

TXISTU ETA DANBOLINA

XIX. mendeko danbolintero eskoladunen erreperitorioko *Kontradantza* bat.

Ekialdeko eta mendebaldeko euskal herri txistularien erreperitorioaren bi muestra ezberdinak: Durango aldeko *Dantzari dantza* bildumako dantzak, *Arizkungo Sagar dantza* eta *Baztango Zortzikoa*.

ALBOKA

Bizkaiko eta Gipuzkoako albokarien erreperitorioetatik hartutako erromerietako dantza doinuak, akordeoi eta panderoaren laguntzarekin. *Arratiatik Txilibrin*, *Durango bazkaldute*, *Gipuzkoako Pandangue* eta *Bueltea*.

Alboka bakar barrarik edo panderoaren laguntzaz dugu euskal herri musikaren beste talde ezaguna. Bizkaiko eta Gipuzkoako albokari zaharrak izan dira azken mendeetan gure erromerietako protagonistak. Korroko eta saltotako martxaz gain, bi izan dira nagusiki gure herrietako plazetan egin diren dantzak, fandangoa eta arin-arina. Gehienetan biak elkarturik, bata bestearen ondotik, neska eta mutilak, gizonezkoak eta emakumezkoak harremanetan jarri eta elkartzen zituztenak.

Juan Mari Beltran hirukotea:

Juan Mari Beltran Argiñena: txanbela, arrabita-rabela, xiolarrua, zarrabetea, tronpa, txalaparta, alboka, dultzaina, txistu-danbolina, xirula-ttunttuna.

Ander Barrenetxea Lasarte: panderoa, txalaparta, danborra, ahotsa, kanabera, arxaluak, tupinutsia,

Ane Errege Belda: akordeoia, trikitixa, ahotsa.

JUAN MARI BELTRAN ARGIÑENA, Donostian jaioa 1947an.

Herri-musika musikaria, jole, ikertzaile eta irakaslea. Gaztetatik herri musikan murgildurik izan dugu, 11 urtekin Etxarri Aranatzeko txistu taldean eta Udal Musika bandan klarinete-jolea zen eta 16 urteetarako ARGIA taldean genuen. Garai hartan besteak beste Zuaznabar eta Goikoetxea txalapartari, Txilibrin, Patxi Gorrotxategi eta Leon Bilbao albokari, I. Ansorena eta M. Elizalde txistulari eta Gipuzkoako dultzaineru zaharren testiguntza jaso zuen, geroztikan ere konstante bihurtu den lan batean: musika, musikari eta instrumentu informazio bilakatze eta ikerketa.

Zenbait taldeetan partaide izan dugu, R. Ruiz Balerdik sortutako musika kontemporaneo taldean, "Sustraiak", "Azala", "Eltzegor", "Xabier Amuriza hirukotea" edo "Txanbela" Taldea eta "J. Goikoetxea-J.M. Beltran" bikote gisa egindakoa. Talde hauekin zenbait diska grabaturik ere baditu. 1999. geroztik Juan Mari Beltran izenean, bakarrik, bikote edo hirukotez "Euskal Herri Musika eta Herri Soinu-tresnak" emanaldi didaktikoa eskeintzen du eta seikotez euskal herri musikaz eta berak sortutako musikarekin osatutako kontzertua. 2002ko hasieran grabatu eta argitaratu zuen "Arditurri" izeneko diskoa. 2004. urtean Tantaka-Kukai taldeen "1937 Gogoaren bidezidorretatik" dantza ikuskizuneko musika egin zuen. 2006an "Orhiko xoria" CDa argitaratu du. 2007an Astiasaran anaiekin batera "Amasatik Arratera" CDa argitaratu du. 2009an "Txalaparta-ttakun ttan ttakun" CD eta 2012an "Xiolarrua" tituludun CD-liburua.

Bilketa eta ikerketa aldetik zenbait gauz publikatu ditu, Eusko Ikaskuntzarako, Cuadernos de Etnografía y Etnografía de Navarra, Txistulari, Eufonía, etb. Lan hauek soinu-tresna, dantza-joku eta herri-musikari buruz egindakoak dira. Honetaz gain "Euskal Herriko Soinu tresnak" diska eta pelikula, "Oiartzungo hotsak" bideoa eta "Euskal Herriko Soinu tresnak" CD-ROMa egin ditu halako euskarrietan ezagutzen den bilduma garrantzitsuenetakoa delarik. Idatzitakoaren artean honako liburuak egin ditu: "Soinutresnak euskal herri musikan", "San Telmo Museoko soinu eta hots tresnak", "Dultzaina Gipuzkoan", "Txalaparta" liburua-CD-DVD.

Pedagogi mailan, oinarrizko hezkuntzan musika irakaslea izan da eta 1985tik 2012 arte, Hernani Musika Eskola Publikoan, txistu, dultzaina, alboka eta txalaparta irakaslea izan da. Eskola honek 1987.z geroztik urtero Hernanin "Txalaparta Festa" jardunaldiak eta 1994.z geroztik "Albokarien topaketa" antolatzen ditu. Baita ere, Euskal Herriko Unibertsitateko Majisteritza Fakultatean, Institutoetan, Musika eta bestelako ikastetxeetan ikastaroak, hitzaldiak eta emanaldi pedagogikoak ematen ditu. 2012tik aurrera Oiartzungo Herri Musika Eskolan xiolarrua erakusten du.

Gaur egun, bere bizian zehar osatutako herri-musika materialen bildumarekin (soinu-tresna bilduma, biblioteka, fonoteka eta irudi artxiboa-argazki eta pelikulak), "Soinuenea" - Herri Musikaren Txokoa izeneko herri musikaren dokumentazio zentroa antolatu du. Oiartzungo Udalaren babesarekin zentro honek 2002-03-01. geroztik publikorako funtzionatzen du.

Ander Barrenetxea Lasarte. 1977an Hernanin jaioa

Musika ikasketak: Bateria: (6 urte. 1994-2000) "Jazzle Musika Eskola"-n. Dultzaina: Hernani Musika Eskolan 3. maila. Txalaparta: Hernani Musika Eskolan 3. maila. Danborra, atabala: Hernani Musika Eskolan. Panderoa, txaramelak, ote-jotzea, toberak, kirikoketa, kanabera Oiartzungo Herri Musikaren Txokoan.

Irakasle gisa eskola hauetan ibilia da:

“HERNANI “ Udal Musika Eskolako danbor irakaslea (2000-2003).

2003. urtez geroztik, hainbat lekutan txalaparta klaseak eta ikastaroak eman ditut: Billabonako Udal Musika Eskolan Txalaparta irakaslearen ordezkapenak. “Hernaniko Martindegi Auzoko Oialume”n eta Oiartzungo Herri Musika Eskolan.

Musika-jole gisa: ETZAKIT Musika taldeko sortzaile eta baterijolea (1995-2003). 2 disko. TRIKI TA KE taldeko baterijole laguntzailea izan naiz (2003 urtean). IZOTZ taldeko baterijole laguntzailea (2003 urtean).

Gaur egun: J.M. Beltranekin jotzen du “Euskal Herriko soinu-tresnak” izeneko erakustaldi-kontzertuetan (2002. urtez geroztik). J. M. Beltran taldeko partaidea “Arditurri” emanaldietan (2003-etik). Mac’Jearas taldeko partaidea (2003-2004). Hernani’ko txalaparta festa antolatzen duen “ttakun ttan ttakun” taldeko partaide naiz (2001. Urtetik). 2006an Juan Mari Beltranen “Orhiko xoria” eta “Txalaparta-ttakun ttan ttakun” CDan txalaparta eta perkusioak grabatu ditu.

Ane Errege Belda. Hernanin 1977an jaioa.

Manuel Yabenekin eta Maite Sanzekin hasi zen hauspoa astintzen, ondoren Maribel Insaustirekin jarduteko Hernani Musika Eskolan. Goi Mailako akordeoi ikasketak burutu zituen Donostiako Kontserbatorioan Miguel Bikondoarekin, bertako akordeoi orkestran egindako lanaz gain aipatzekoa delarik Juan Mari Beltranekin Txanbela taldean aritua, besteak beste. Talde honekin 2002an *Arinarinketan* diskoa grabatu zuen akordeoi eta trikitixa joaz.

2010etik aurrera Juan Mari Beltran seikotean *Orhiko xoria* kontzertuetan parte hartzen du akordeoi eta trikitixa joaz.

"Hernaniko Dultzaineroak" izeneko taldeko akordeoilaria da eta Hernani Musika Eskolako Dultzaina taldeko danbor-jolea.

Gaur, talde ezberdinetako soinularia izateaz gain hezkuntza orokorrean dihardu, musika irakasle gisa.